

KANALAK

Gure enpresak arrakasta izateko, hainbat kanal ezberdin erabiliko ditugu, bezeroengana modu eraginkorrean iritsi ahal izateko. Atal honetan, gure produktuak helarazteko beharrezko diren kanal guztiak aztertuko ditugu.



Gure enpresan bi kanal mota erabiliko ditugu: salmenta fisikoa eta online salmenta. Salmenta fisikoan, gure dendara etorriko dira eta aurrez aurreko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko aukera izango dugu. Online salmentan berriz, bezeroek gure webgunean erosketak egingo dituzte era seguru eta intuitibo batean.

Banaketa kanaletan, bezeroak eskatutako produktua era seguru eta azkarren entregatuko zaio. Online salmenten kasuan, Correos, UPS, DHL eta antzeko enpresak erabiliko ditugu produktuak bezeroengana bidali ahal izateko.

Komunikazio kanaletan, emailak, telefono deiak eta sare sozialak erabiliko ditugu bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure enpresa iragarkitzako. Sare sozialetan komunikazio interaktiboa izango dugu, eta helbide elektroniko bidez eskaintza bereziak eta produktuen berriak jakinaraziko ditugu.

Gure bezeroei edozein produktu erosi ondoren, inkesta bat bidaliko diegu. Inkesta honetan, bezeroen iritzia jasoko ditugu, hortaz gure zerbitzua hobetu dezakegu beraien aholkuak kontuan hartuta. Inkesta hau helbide elektroniko bidez bidaliko da, eta horretarako, erosketak bakoitzean bezeroen mezu elektronikoa jasoko dugu, bai fisikoan bai online salmentetan.